EZKIO-ITSASO

# Josu Tellabide etnologoa Igartubizia topagunean

**20.07.13 - 00:03 - :: GALILEA | EZKIO-ITSASO.**

Igartubeiti Baserri Museoak «Igartubizia» proiektuaren hirugarren topaketa aurkezten du oraingoan, honetan Josu Tellabide etnologoaren begirada ezagutzeko aukera dugularik. Topagune honek afektibitatetik eta memoriatik baserrira hurbiltzen gaituela diote Igartubeitikoek, baserriarekin harremana izan duten pertsona ezberdinekin izandako solasaldien bitartez, nBaserriaren historia zentzuz osatzen dituzten esperientziak gogoraraztean sortzen diren oroitzapenak, sentimenduak, sentsazioak bilduz.

Orain arte Ana Mendigurenen eskutik hurbildu izan gara Igartubeitira; eta bigarrenik Fermin Leizaola etnografi ikerlariaren azalpen eta istorioak ezagutu genituen. Oraingoan Josu Tellabide etnologoaren txanda da eta honek baserriaren berritzea, berak bertan egindako lanak, Yarturen sorrera, eta Igartubeitiren garrantziari buruz hitz egiten du, besteak beste.

«Dolarearen erabilpena eta sagardoa egitearena Igartubeitin deskubritu zen. Ordura arte ez genekien dolare bat zer zen. Manu Izagirre, Alberto Santanak Iribar baserria eta bertako Jose Ramon Vitoria deskubritu zuten Donostiako Igara auzoan. Gizon hau oso jakintsua zen, esplikatu zigun sagardoa nola egiten zuten baserrian palanka batekin eta baserriak kras kras egiten zuela. Orduan konturatu ziren Igartubeitin bazeudela ere lau zutabe», azaltzen du etnologoak museotik egindako elkarrizketan.

Josu Tellabideren elkarrizketa osoa irakurri edo entzuteko, edo Ana Mendiguren eta Fermin Leizaolarena irakurtzeko ere web orrira jo beharko da www. igartubeitibaserria.net-era.

## TAGS RELACIONADOS

josu, tellabide, etnologoa, igartubizia, topagunean

Publicidad



**Vacaciones en HotelMinuto**
Primera Central Hotelera Low Cost. Hoteles Increíbles a Precios Irresistibles !!
**www.hotelminuto.com**



**¿Productos Apple por 17€?**
Compradores españoles consiguen hasta un 80% de descuento usando un sorprendente truco
**www.megabargains24.com**



**Hotel de lujo desde 30€**
Busca tu Hotel al mejor Precio. Compara entre +600.000 Hoteles y Ahorra
**www.trivago.es**



**Viajes 5* al -70%**
Disfruta de planes de viajes exclusivos con hasta -70% de descuento. ¡Hazte socio ahora!
**www.voyageprive.es**




**Para poder comentar debes estar registrado**

**Añadir comentario**

Iniciar sesión con Regístrate

Escribe aquí tu comentario.

La actualización en tiempo real está **habilitada**. (Pausar)

Ordenar por los más recientes primero

**Mostrando 0 comentarios**

Suscríbete por e-mail RSS

--%>

Powered by SARENET

diariovasco.com

© Copyright DIARIOVASCO.COM Sociedad Vascongada de Publicaciones, S.A.

ENLACES VOCENTO

ABC.es Hoy Digital
El Correo La Rioja.com